

Gaztedia-ltxaropen

Gure gaztedi bikain mardula
nik ikustean txaidean
itxaropena ezti ta pozez
nire biotzan erdian.

Urte luzetan negar ugari
egin dau gure erriak
azpiratuta, askatasunge
ilteko zorin guztiak.

Baña ixilpen euskal azia
zaindu da gordin mirariz
oin azalera urten dau sendo
euskaltasunak gaur biziz.

Udabariak dirudi eder
biziz beterik erritan
euskaldun sena borbor agiri
gure gazteen begitan.

Euskal gudarín odol zintzoak,
guraso zarren kemenak,
iraun egin dau gure artean
bear zan kimu lerdinak.

Ilda egola zarrak iltean
euskal endaren sustraiak?
Ez ez anaiak, ez olakorik
dira ba euskal gazteak.

Ikusi orain poz atsegiñez
gure gazteen arpegi.
Dana da poza, dana bizia
dana garbi eta argi.

Ez da bildurrik, ez ta eziñik
gaztedi barri onetan
euskaldun enda gora biotzak,
aurrera gizaldietan.

ZAR-GAZTE

Laztandu nau, semia...!

Kaletik etozala, ikus i dodaz:
ama, argal, ule-zuri, baltzez jantzita;
bere onduan alaba, ondiño gazte
ona, galanta, abuan irri-barria.

Barriz orduko aldiak gomutau dodaz:
alkar aurkitu ziñen iturrian
biok begiak barre, agin zuriak
maitasun izpi bixi biotzian.

Ene semia,
andikiren alabagan
ipinten bozuz zeure begiak,
zeure gaixua!...
Ba-datoz bere osabak bere billa
zugandik urrunduten, arin arinka.

Igaro dira egunak, igaro urtiak...
Urrun il da gaixua, atzerrian.
Enaz ni iñoz aitzu, bere irudia
bixi-bixirik daukat biotzian.

Agurtzeko une baten urreratu naz.
Ezagutu nau amak, abegi onaz.
Itz batzuk egin doguz eta alabeak
maitasunez laztandu, agurtzean.

Zeu gana barriz nator, seme gaixua,
ikusi dot barrero maitalea,
gutziz galanta ondiño
ezkongabea,
ta ziur nago:
mosu ori izan dala zeuretzat.

UTARSUS



Ume Jaio Barria

Zoragarria zara
ume bigun ona
ezpan gorrietatik
dozu negar leuna.

Atz txikiak dituen
eskutxo zuriak
ara ta ona beti
gelditu eziñak.

Begitxu sort barriak
zabal-zabal dozuz
argiz bete beterik
zeruko zizpuruz.

Zuri begira nago
aundi nik gogamen
zer izango ete zaren
gure artean emen.

Begi garbi argiak
loituko ete dira?
beti zuri garbiak
izango ete dira?

Ezpan lore gorriak
aundi egitean
izango itz garbidun
gizaki artean?

Ointxu indar bageak
gogor daizanean
ibilko ete dira
bide zuzenean?

Txikia izan arren
mundu oro zara,
zure barrun dozula
etorkizun gara.

Gizadi ondu dedin
guztiok zugana
etorri bear dogu
eskainiz lan dana.

Agintari elizak
irakasle ta abar
zu or izatearren
lan dana ez da lar.

Zelako ingurua
alako umea
inguru zintzo garbik
edertzen lorea.

Ekin ta ekin daigun
egiz ta alegin
gure umetxo onek
inguru on dagin.

GALLASTEGI'TAR KAULDI'K